

## KONPROMISOAREN IZENA: K#4 OPEN ESKOLA: **Gobernamendu Publikorako herritarrentzako eskola irekia**

### 1. FASEA: 2018-2019

#### 1) Entitate / pertsona parte-hartzaileak (adierazi zenbat, entitate publikoen eta pribatuen %, emakumeen eta gizonen %)

Entitate kopurua: 26

Entitate publikoak: % 70

Entitate pribatuak: % 30

Pertsona kopurua: 103

Emakumezkoak: % 40

Gizonezkoak: % 60

#### 2) Konpromiso-taldeak eta foro irekiak egindako bilerak (adierazi bilera kopurua eta parte-hartzaileen zenbaketa orokorra)

##### Konpromiso-taldea:

0 - 2018/10/16: 13 pertsona. Entitate publikoak: 7; Entitate pribatuak: 2; Herritarrak: 1. (5 emak./5 giz.).

1 – 2018/11/13: 17 pertsona. Entitate publikoak: 6; Entitate pribatuak: 8; Herritarrak: 1. (7 emak./10 giz.).

2 – 2019/02/19: 13 pertsona. Entitate publikoak: 3; Entitate pribatuak: 5; Herritarrak: 1. (5 emak./8 giz.).

3 – 2010/6/11: 20 pertsona. Entitate publikoak: 7; Entitate pribatuak: 7; Herritarrak: 1. (9 emak./11 giz.).

##### Foro irekia:

1 – 2019/05/08: 33 pertsona. Entitate publikoak: 7; Entitate pribatuak: 19; Herritarrak: 2. (16 emak./17 giz.).

### 3) Mugarri/entregagai nagusiak orain arte (estekak jarri)

(Eginda eta onetsita dagoen kronograman, “minus” zeinuarekin (-) adierazi dira lehenengo bi mugarriak, aholku-taldea proiektua gauzatzen hasi baino lehen egin zirelako).

## **-2. mugarria**

Erakundearteko lantaldea osatzea eta K#4 konpromisoaren lantaldea osatzea

- [OPEN ESKOLA: herritarrentzat irekitako eskola - 4. konpromiso taldea osatzeko deialdia \(PDF, 268.05 KB\)](#)
- [2018/10/16 Gai-Zerrenda \(PDF, 120.74 KB\)](#)
- [4.K 2018/10/16 bileraren aurkezpena \(PDF, 1.52 MB\)](#)
- [Konpromisoaren fitxa operatiboa \(PDF, 208.73 KB\)](#)

**EGOERA: AMAITUTA**

## **-1. mugarria**

Konpromisoa egiteko plangintzaren proposamena

- Urriaren 25ean, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala (hausnarketa-taldea) eta BIKOnsulting eta Gadamer (aholku-taldea) bildu ziren, eta #k4 konpromisoaren ekintza-planaren konpromisoari eta horretarako kronogramari buruz hausnartu zuten.
- Ondorengo bileretan, plana eta kronograma zehaztu zituzten, amaitutzat emango zirela erabaki zuten arte.

**EGOERA: AMAITUTA**

## **0. mugarria**

Bilera konpromiso-taldearekin. Open Eskola gidaliburuaren irismena, helburuak, irizpideak eta testuingurua.

- Azaroaren 13an, konpromiso-taldea, hausnarketa-taldea eta aholku-taldea bildu ziren, ekintza-plana eta kronograma aurkezteko eta horri buruz hausnartzeko.
  - [2018/11/13 bileraren deialdia \(PDF, 215.71 KB\)](#)
  - [2018/11/13 bileraren gai-zerrenda \(PDF, 133.51 KB\)](#)
  - [2018/11/13 bileraren aurkezpena \(PDF, 1.46 MB\)](#)
  - [2018/11/13 bileraren akta \(PDF, 307.2 KB\)](#)
  - [Ekintza-plana eta kronograma \(PDF, 621.78 KB\)](#)

**EGOERA: AMAITUTA**

## **1. mugarria**

Herritarrentzako eskola irekietako praktika berritzaileak mapatzea Euskadin eta beste erreferentzia-leku batzuetan. **OHARRA:** Euskadin, OGP bazkideetan eta beste erreferentzia-leku batzuetan antzekoak diren proiektuak identifikatu, diseinuari gehitzeko.

- Lan hau guztiz entregatu aurretik (azaroa, abendua eta urtarrila artean egiten da). 2019/12/19an, jarraipen-bilera egin zuten hausnarketa-taldeak eta aholku-taldeak, hainbat gai aztertzeko. Mapaketari dagokionez, hauek dira aipagarrienak:
  - Esperientzien fitxa, apartatuak eta bilaketa-irizpideak balidatzea.
  - Fitxa batzuk berrikustea fitxa bakoitzaren informazio-maila eta edukia onesteko

**EGOERA: AMAITUTA**

## **2. mugarria**

Mapatzea azterzea eta agiria prestatzea konpromiso-taldearentzat

- Urtarrilaren 8an, mapatzeari buruzko azken txostena entregatu zen, konpromiso-taldeko kideei bidaltzeko, txostena erkatzeko 2019-02-19rako deitu zen bilera baino lehen aztertu ahal izan zezaten.
  - [Open Eskola Mapaketaren aurreko txostena \(PDF, 326.56 KB\)](#)

**EGOERA: AMAITUTA**

## **Bitarteko mugarria**

#k3 iLab-en eta #k4 Open Eskolaren arteko erkatze-bilera.

- Jakin badakitenez harreman handia egon behar dela konpromiso bien artean, biak bildu ziren Vitoria-Gasteizko udaletxean OGP Euskadirekin, Eusko Jaurlaritzako DACIMA edo Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin, Innobasquekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin, ordura arte egindako lan-ildoen berri izateko eta erkatzeko ea komeni zen bakoitzak bere aldetik jarraitzea baina elkarren arteko harremanak izaten, aukera egonik iLab-ek sortutako partaidetza-proiektuetan sartzeko eta horiek Open Eskolako proiektu pilotuen barruan esperimintatzeko. Bilera horren berri eman zitzaion 3. mugarriaren hurrengo bileran egongo ziren taldeei.

## **3. mugarria**

Mapatzea oinarri hartuta ondorioztatutako helburuen zirriborroa eta jarduera-ildoak ebaluazio-adierazleekin

- Bilera konpromiso-taldearen, hausnarketa estrategikorako taldearen eta aholku-taldearen artean, Open Eskolako proiektu pilotuetan nahitaez lantzekoak direla irizten diren helburu, arlo eta edukien zirriborroa egiteko, bost lurralde-tamaina oinarri hartuta.
  - [2019/02/19 Gai-Zerrenda \(PDF, 229.79 KB\)](#)
  - [2019/02/19 bileraren akta \(PDF, 2.15 MB\)](#)

- [Open Eskola gidaliburuaren lehenengo zirriborroaren azterketa. 3. mugarria \(PDF, 180.86 KB\)](#)

## EGOERA: AMAITUTA

### **4. mugarria**

**Partaidetza-saio zabala (talde zabala) zirriborroaren proposamena erkatu eta hobetzeko**

- #k4 Open Eskolan aurreratutakoa azaldu zitzaizen deitutako herritar guztiei, hau da, talde zabaleko kide guztiei, eta konpromiso-taldeari, hausnarketa estrategikorako taldeari eta aholku-taldeari. Ondoren, partaidetzarako dinamika bat garatu zen, erkatzeko eta hobetzeko proposamen guztiak biltzeko.
  - [2019/05/08 foro irekirako deialdia \(PDF, 49.55 KB\)](#)
  - [2019/05/08 foro irekiaren akta \(PDF, 881.4 KB\)](#)

## EGOERA: AMAITUTA

### **5. mugarria**

**Open Eskola ezartzeko behin betiko proposamena egitea**

- Ordura arte egindako lan guztia, talde zabaleko saioan bildutako hausnarketekin eta hobekuntza-proposamenekin batera, Open Eskola gidaliburua izango den zirriborroan ezarri ziren. Lan hori hurrengo bilerara eramango da lehenengo, bertan idatzitakoaren berri izan dezan konpromiso-taldeak.
  - [Zirriborroa ezartzea, Open Eskola gidaliburuaren 2. bertsioa \(PDF, 284.57 KB\)](#)

## EGOERA: AMAITUTA

### **6. mugarria**

**Open Eskola ezartzeko gidaliburuaren aurkezpena**

- Konpromiso-talderako deialdia egin zen, ekainaren 11n Vitoria-Gasteizen elkartzeko, Open Eskola gidaliburuaren zirriborroa aurkezteko. Dinamika parte hartzailea erabili zen, bertan bildutako hausnarketa eta proposamen guztien emaitza erkatu ahal izateko. Era berean, aurreikusitako hiru proiektu pilotuen berri ere eman zen (Bilbo, Tolosa eta Añanako Kuadrilla), baita erkatze-proiektuaren berri ere (Vitoria-Gasteiz). Pilotu izango diren entitate guztietako ordezkariak bertaratu ziren.
  - [2019/06/11 konpromiso-taldearen bilerarako deialdia \(PDF, 360.32 KB\)](#)
  - [2019/06/11 talde irekiaren bileraren akta \(PDF, 1.77 MB\)](#)
  - [Open Eskola Gidaren zirriborroa \(3. Bertsioa\) \(PDF, 669.42 MB\)](#)

## EGOERA: AMAITUTA

## **7. mugarrria**

**Vitoria-Gasteizko eskolan 2019-2020 ikasturterako programazioan definitutako hobekuntza eta aldaketak ezartzea, eta lehenengo aldiz hasia beste udalerrri baten/batzuetan.**

- Bilbon, Tolosan eta Añanako Kuadrillan proiektu pilotuak egitea erabaki da. Era berean, mugarri honen barruan sartu da Vitoria-Gasteiz HEIko herritarren partaidetzarako proiektua. Proiektu pilotu baino, erkatze-proiektua izango da gehiago; izan ere, hiru urteko funtzionamendua dauka eta saiakuntza-proba ona izan daiteke, hainbat ikasturtetan landu daitezkeelako ekintzak; ondorioz, jarduerak denboran zehar erkatzeko aukera ematen du.
- Zazpi jarraipen-bilera egin dira orain arte: hiru Bilboko proiektuari buruz, bi Tolosakoari buruz eta bi Añanakoari buruz. Vitoria-Gasteizko eskolan, laugarren ikasturteko lehenengo hiruhilekoari ekin zaio urriaren amaieran.

**EGOERA: HASITA**

PILOTUAK	Egindakoa	Epe laburrera	PILOTUAK
<b>Añanako Kuadrilla</b>	<p>Talde bultzatzailea (tekniko estrategikoa) sortu da. Bi bilera egin dira</p> <p>Lurralde politikarekin nola josi zehazteko lerro estrategikoak ezarri dira</p> <p>Talde eragilea osatu da (herritarrak barnean hartzen ditu) Bilera bat egin da</p> <p>Idazkaritza tekniko kontratatu da Edukien lehen definizioa egin da</p> <p>Open Eskolaren marka eta diseinua zehaztuta, dagoeneko</p> <p>Bi jarraipen bilera egin dira (OGP4n aurreikusitako bostetatik)</p>	<p>Irailaren 18an, talde eragilearen bigarren bilera:</p> <p>-Sarrera: Añana Open Eskola</p> <p>-Zer da talde eragilearen barruan egotea?</p> <p>-Añana Open Eskolaren proposamenen eta estrategien laburpena</p> <p>-Imajina Añana-ren edukiaren proposamena</p> <p>-Beste gai batzuk</p> <p>Sozializazioa, kuadrilla osatzen duten hamar udalen osoko bilkuretan informazioa sartzearen bidez</p>	<p>OEAñana-ren ekintzak egiten hasi azaro erdialdean</p> <p>OEAñana-ren sozializazioa kontzejuetan, komunikazio agiria irakurtzearen bidez</p> <p>Abenduan, talde eragilearen hirugarren bilera</p>
<b>Tolosako Udala</b>	<p>Talde bultzatzailea sortu da (tekniko estrategikoa)</p> <p>Bi jarraipen bilera egin dira (OGP4n aurreikusitako bostetatik)</p> <p>Tolosako Plangintza Partekatua 2017-2027 (Tolosatzen) planean OE nola josi zehaztu da</p> <p>Kanpoko idazkaritza kontratatu da</p> <p>Barne sozializaziorako agenda eta ekintzak zehaztu dira</p>	<p>Urriaren 2an, lehen sozializazio bilera eta talde eragilea aktibatu</p> <p>OETolosa-ren identitate bisuala eta marka zehaztu</p> <p>Kanpo sozializazioa, udalaren bideen bitartez</p>	<p>Hirugarren jarraipen bilera (OGP4n aurreikusitako bostetatik)</p> <p>OETolosa-ren ekintzen lehen definizioa</p> <p>Talde eragilearen bigarren bilera</p>
<b>Bilboko Udala</b>	<p>Talde bultzatzailea (tekniko estrategikoa) sortu da</p> <p>Bi jarraipen bilera egin dira (OGPn aurreikusitako bostetatik)</p> <p>Idazkaritza lanak (honako honetan, barnekoa) nork eta nola egingo dituen zehaztu da</p> <p>Udalean bertan barne sozializazioa egiteko estrategia prestatu da (zeharkako bihurtzea pentsatzen ari dira)</p> <p>OERI lotuta egon daitezkeen udalaren ekintza, plan eta proiektuen inbentarioa, eta nolako lotura izan dezaketen</p> <p>Herritarren partaidetzarako dauden organoak abiapuntu hartuta, talde eragilea nola era daitezkeen planteatu da</p> <p>Edukien lehen proposamena</p>	<p>Partaidetzarako sailen arteko batzordea aktibatu</p> <p>Edukien proposamena</p> <p>Komunikazioa (OERen barrukoa eta kanpoko)</p> <p>Arloetako bilerak</p> <p>OERen zigilua duten prestakuntza ekintzen zerrenda diseinatu</p> <p>OERen edukiei buruzko iritzia/balorazioa jasotzeko inkesta banatu</p> <p>Talde sustatzailearen lehen bilera</p> <p>Hirugarren jarraipen bilera (urriak 1)</p>	<p>Kontseiluetan OERI buruzko argibideak emateko jardunaldia (partaidetza mekanismoa gaitu liteke, edukiei buruzko iritzia emateko)</p> <p>Talde eragilea sortu/eratu</p> <p>Bilboko partaidetzari buruzko lehen prestakuntza jardunaldia eman kontseilarentzat, zeinak barnean hartuko baitu barrutiko kontseiluetako kontseilari eta kontseilukide izendatu berrientzako gizarte trebetasunei buruzko lehen ikastaroari dagokion zatia (19/10/31: Alkatetzaren Dekretua, hautatu eta izendatzekoa).</p>

#### 4) Orain arteko zailtasun nagusiak (adierazi zein izan diren eta nola egin zaien aurre)

- Zailtasunik handiena herritarrei eta entitateei egindako deialdiak izan dira, borondatezko lana delako eta eguneroko bizitzaren ondorioz zaila delako parte hartzea.
- Herritarrek (lotura duten elkarte edo entitateetan zereginik betetzen ez dutenek) oso gutxi hartu dute parte; ez dugu jakin haiengana heltzen. Hala ere, partaidetzarekin lotura duten elkarte, proiektu edo enpresetan inplikaturik dauden herritarrek bai adierazi dute interes handia.
- Ordezkaritza politikoari dagokionez, eremu ezberdinetatik #k4 konpromisoan sartuta dauden erakundeetan ordezkaritza duten pertsonak baino ez dute parte hartu.
  - Lidergoa: Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia.
  - Lurralde pilotuak: Bilboko Udala, Tolosako Udala eta Añanako Kuadrilla.
- Ordezkaritza teknikoa ona izan da, haiek eraman baitute dagozkien erakundeen zama ekitaldi gehienetan.

#### 5) Kronograma betetzea (adierazi aurrerapenak OGPri emandako konpromiso-fitxan deskribatutakoaren arabera)

- Orain arte, zehatz eta modu fidagarrian bete da jardueren hasieran egin zen kronograma.

#### 6) Pilotuen egoera –hala badagokio– (entitate parte-hartzaileak eta proiektuen helburuak)

##### 4. mugarrian azaldutakoa errepikatuko dugu

- Bilbon, Tolosan eta Añanako Kuadrillan proiektu pilotuak egitea erabaki da. Era berean, mugarririk honen barruan sartu da Vitoria-Gasteiz HEIko herritarren partaidetzarako proiektua. Proiektu pilotu baino, erkatze-proiektua izango da gehiago; izan ere, hiru urteko funtzionamendua dauka eta saiakuntza-proba ona izan daiteke, hainbat ikasturtetan landu daitezkeelako ekintzak; ondorioz, jarduerak denboran zehar erkatzeko aukera ematen du.
- Zazpi jarraipen-bilera egin dira orain arte: hiru Bilboko proiektuari buruz, bi Tolosakoari buruz eta bi Añanakoari buruz. Vitoria-Gasteizko eskolan, laugarren ikasturteko lehenengo hiruhilekoari ekin zaio urriaren amaieran.

## 2. FASEA: 2019 - 2020

### 1) IRMren gomendioak (adierazi zer urrats egingo diren gaiari heltzeko)

IRMren gomendioei bere garaian erantzun zitzaizen OGPren txosten batean: **“IRUZKINAK, ERABAKI AURREKO ZIRRIBORROAREN GAINEAN. IRM: OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA-PLANAREN DISEINUARI BURUZKO TXOSTENA”**. Argi eta onartuta zeudela uste genuen. Berritatu idatziko ditugu, berritatu jasota geratu ahal izan dadin apartatu honetan.

#### o 4.I-Open Eskola (herritarrentzat irekitako eskola)

4. konpromisoari jarraikiz, etorkizunean, txostenean, eta, zehazki, hurrengo urratsetan, komenigarria da aztertzea ea Open Eskola ordezkari politiko eta funtzio publikoen artera zabaldu beharko litzatekeen. Egia da izenak berak (herritarrentzat irekitako eskola) txarto ulertuak eragin ditzakeela konpromisoa interpretatzean, herritarrei soilik zuzenduta dagoela uler baitaiteke. Hala ere, hasierako kontzeptua ezartzean, Planean honakoa azaltzen zen: “que sea un espacio de aprendizaje en habilidades para la colaboración en la cogeneración de valor público donde se implique la ciudadanía y personal técnico y político de la gestión pública”. Eta helburu eraginkorretan honakoa adierazten zen: “generar actitudes y comportamientos tanto en la ciudadanía como en los agentes públicos proclives a la colaboración basados en la confianza, lo que permitirá indagar en las necesidades e intereses diversos de las partes, la comunicación efectiva, la escucha activa, la prevención del conflicto o la solución del conflicto de manera no confrontativa buscando acuerdos satisfactorios para las partes...” . Ondorioz, ordurako adierazten zen Open Eskola herritarren eskola bat izango zela, eta, ez, ordea, herritarrentzako eskola.

Hori dela eta, nahasdua eragin dezakeen gomendio hori ezabatu beharko litzatekeela uste dugu.

Halaber, 3. konpromisoarekiko koordinazioa egon dadila proposatu da, hain zuzen ere, garatzen diren berrikuntzak Open Eskolaren bidez hedatu daitezkeen. Ondorio hori bera aterata plana ezarri bitartean ere, eta, are gehiago, koordinazio-bilerak egiten ari dira bi konpromisotaldean artean, tresna horien kontzeptualizazioari koherentzia emateko: herritarren partaidetzarako berrikuntzaren I-lab eta Open Eskola. Kasu honetan, azalpen bat da, eta ez da nahitaezkoa txostenean agertzea.

### 2) Epe laburrean jorratu beharreko konpromisoaren erronka nagusiak (adierazi zeintzuk diren eta zein neurri aurreikusten diren horiei heltzeko)

- Erronka nagusia da proiektu pilotuak garatzea jarduten hasi den lurraldeetan, baita Vitoria-Gasteizko HEIn finkatuta dagoen proiektuko ekintza errepikakorrak garatu eta erkatzea ere.

### 3) Komunikazioa eta kontu-ematea – Nola lortuko da landutakoa luze-zabal hedatzea? Zer egingo da ekarpenak/hobekuntzak irekian jaso ahal izateko, ebaluaziorako tresnak sortzeko eta abar?

- Kronogramari eta ezarritako ekintza-planari jarraituko zaie, hortxe baititugu foro irekiarekin erkatzeko hainbat mugarri. Landutako guztia OGP Euskadiren web-orrian azaldu eta eguneratzen da.